

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Hutsen zuzenketa 2020ko abuztuaren 10eko ALHAOn argitaratutako 2020/ 2195 iragarkian, hain zuzen, Tokiko Gobernu Batzar 2020ko uztailaren 3an onetsi zuen Laudio Udalaren 2020. urterako lan eskaintza publikoari buruzkoan

Udal honetako Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko azaroaren 13an egindako ohiko batzarrean, honako erabaki hau hartu da:

Zuzentzea Tokiko Gobernu Batzarrak Laudio Udalaren 2020rako lan-eskaintza publikoa onesteko 2020ko uztailaren 3ko hartutako Erabakiaren lehenengo puntuko xedapenetan antzemandako akatsak (89. ALHAO, 2020ko abuztuaren 10ekoa). Hortaz, aldaketa hauek egin behar dira:

Hau dioen lekuan:

“Atezain harreragilearen plaza 1, 9056 kodea duena, administrazio bereziko eskalakoa, zerbitzu berezietako azpieskalakoa, ogibideetako langileen klase pertsonalekoa, (E) ogibide taldean, euskarazko 2. hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa izanda. Desgaitasun intelektuala duten pertsonentzat erreserbatu da plaza hori.”

Hau ipintzea:

“Atezain harreragilearen plaza 1, 9056 kodea duena, administrazio bereziko eskalakoa, zerbitzu berezietako azpieskalakoa, ogibideetako langileen klase pertsonalekoa, E lanbide taldean, euskarazko 2. hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa izanda. Plaza hori desgaitasuna duten pertsonentzat gordeko da.”

Eta hau adierazten den lekuan:

“Peoi espezialisten 6 plaza, zehazki, 9016, 9025, 9027, 9029, 9030 eta 9057 kodeak dituztenak, administrazio bereziko eskalakoak, zerbitzu berezietako azpieskalakoak, ogibideetako langileen klase pertsonalekoa, (E) ogibide taldean, euskarazko 1. Hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa izanda.”

Hau ipintzea:

“Peoi espezialisten 6 plaza, zehazki, 9016, 9025, 9027, 9029, 9030 eta 9057 kodeak dituztenak, administrazio bereziko eskalakoak, zerbitzu berezietako azpieskalakoak, ogibideetako langileen klase pertsonalekoa, C2 lanbide taldean, euskarazko 1. hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa izanda.”

Laudion, 2020ko azaroaren 13an

Alkate-udalburua

ANDER AÑIBARRO MAESTRE